

Hezkuntza Zentroen

Berezko Izaera

La Salle



La  Salle



La Salle Hezkuntza Zentroen Berezko Izaera Salletar Obren identitatearen zeinuak adierazten dituen dokumentua da. Ezagutzera ematen du hezkuntzaren bitartez gizartea eraldatzeko duten desioa eta jaso egiten ditu beren Hezkuntza Misioari zentzua ematen dioten printzipioak.

© La Salle Ediciones
Marqués de Mondéjar, 32
28028 MADRID

Ilprimatzailea: Villena Artes Gráficas
Legezko gordailua: (M-23513-2014)
Espainian imprimatua/Printed in Spain

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta dago legearen arabera, argitalpen hau bikoiztea, biltzea edo igortzea, osorik nahiz zatika, ezta inolako prozedura teknikoren bidez ere, erreprografia eta informatiko tratamendua barne; eta debekatuta dago, halaber, maileguz edo alokairuz aleak zabaltzea, copyright-en jabeen idatzizko baimenik gabe.

Edukia

<i>1.- Salletar Eskolaren Sorrera.....</i>	<i>05</i>
<i>2.- Gure Identitatea eta Misioa.....</i>	<i>07</i>
<i>3.- Hezkuntza Estiloa.....</i>	<i>09</i>
<i>4.- Hezkuntza Elkartea.....</i>	<i>17</i>
<i>5.- Kudeaketan esku hartzea.....</i>	<i>21</i>





1. Salletar Eskolaren Sorrera


La Salle Hezkuntza Zentroek Salleko san Joan Bautistarengandik hartzen dute izena, bera izan baitzen XVII. mendearen amaieran zenbait maisurekin haur behartsuentzako eskolak mantentzeko asoziatu zena. Beraiekin sortu zuen Kristau Eskoletako Anaiei Institutua.

Hasierako intuizio haiei eta Salleko san Joan Bautistaren bizitzan inspiratzen diren milaka hezitzaileek erakusten duten maitasunari esker, gaur egun, 80tik gora naziotan, milioi bat haur eta gaztek heziketaren onura galanta jasotzen dute La Salle Hezkuntza Zentroetan. Arlep Barrutian 120 hezkuntza zentroetan banatutako 78.000 haur eta gaztek hartzen dute parte Salletar Proiektuan.

Hezkuntza Zentrotzat jotzen ditugu gaur egun salletar misioa garatzen duten eremuak. Kontzeptu honetan sartzen dira Ikastetxeak, Erakunde Unibertsitarioak, Gizarte-hezkuntzazko Obrak...

La Salle Hezkuntza Zentro orok sarean dihardu proiektu berbera partekatzen duten beste obrekin batera.





2. *Gure Identitatea eta Misioa*

2.1- Kristau eta salletar proposamena

La Sallek pertsonaren eta munduaren kontzeptu kristauan oinarritzen du bere hezkuntza jarduera eta Eliza Katolikoaren misio ebanjelizatzailean esku hartzen du. Geure gain hartzen dugu ebanjelizatze proiektu bat eskaintzearen etengabeko erronka: pertsona da erdigunea; Jesus da, eta bere Ebanjelioa, norabidetzen duen horizontea.

2.2 - Haur eta gazteen zerbitzura

Salletar eskolaren misioa haur eta gazteen giza eta kristau heziketa da eta sentiberatasun berezia erakusten du premia handienean daudenekin. Lehentasun hau salletar karismatik datorkigu. Salletar Hezkuntza Elkarteak premiei hobekien egokitzten zaizkien erantzun sortzaileak eskaintzen saiatzen da.

2.3 - Gizartearen zerbitzura

Salletar Hezkuntza Egitasmoa gizartearen zerbitzura dago. Horregatik gizarte zuzenago eta solidarioagoa eraikitzeko konpromisoa hartzen dugu eta giza kontzientzia kritiko eta konprometitua garatzen dugu Hezkuntza Elkarteak kide guztien gain. Erantzuna eman nahi diegu giza errealitateei eta beraien osagai eraldatzaile izan nahi dugu solidaritatearen eta boluntariorikaren sustapenaren bitartez, beste zenbait organismoekin batera.

Salletar Zentro orok tokian tokiko errealitatean, kulturean, ohituretan eta tradizioetan oinarrituta burutu nahi du bere hezkuntza jarduera. Hezkuntza proposamen gisa eskaintzen da, pertsonaren uste sendoak errespetatuz; bertara datozen kultura eta erlijio ezberdinetako pertsonen integrazio sozialaren aldeko konpromisoa adierazten du. Elkarteak aberasten duen osagai gisa ulertzen du aniztasuna.

Salletar Zentroek bizitzarako eskola nahi dute izan. Horregatik, arreta bereziz zaintzen dituzte ingurune sozialarekin, kulturalekin, ekonomikoarekin dauzkaten harremanak, baita elizarekin eta naturarekin ere.





3. *Hezkuntza Estiloa*

3.1- Balioetan Hezteko Proposamena

Sendo sinesten dugu gure tradizioan presente dauden balioetan, gure hezkuntza proposamenaren bizkarrezur baitira.

Hezkuntza Elkarteko kide guztiok beraiekiko jarrera positiboa erakutsi behar dugu, geureganatu egin behar ditugu eta onartu geure bizi-esperientziaren ardatz gisa.

Bereziki, honako balio hauetan gauzatzen da: erantzukizunean, sormenean, justizian, bizikidetasunean, bar-netasunean eta transzendentzian.

Era berean, gure hezkuntza jarduera osatzen eta taiutzen duten beste zenbait baliotan hezten dugu.

Hona hemen gure proposamena:

A - Erantzukizuna sustatzen du

Lagundu egiten diegu haur eta gazteei esfortzuaren, betebeharraren zentzua ikusten, eta lana norberaren aberaste gisa eta gizarteari eginiko ekarpen bezala hartzen. Gonbidatu egiten ditugu hartzen dituzten erabakiak beren balio eta sinesmenekin koherenteak izan daitezen, betebeharrak eta haietatik sortutako ondorioak kontuan hartuz.

La Salle Hezkuntza Zentroetan aukerak aurkitzen dituzte nork bere erantzukizunari ekiteko: emandako hitza beteaz, norberaren lanean zorrotza eta fina izanez, eskolako bizitzan parte hartuz, Hezkuntza Zentroan giro ona sustatuz eta ordena eta puntualtasun ohiturak garatuz.

B - Sormena garatzen du

Hazkunde pertsonalari laguntzen diogu, sormenerako, iniziatibarako, errealitatea ikuspuntu ezberdinetatik ikusteko gaitasuna sustatuz, horrela erantzunik egokienak eman ahal izan ditzaten.

Haur eta gazteek aukerak aurkitzen dituzte beren autonomia lortzeko, orijinaltasuna, intuizioa, espiritu berri-tzailea eta espiritu kritikoa garatzeko. Hori guztia premiazkoa da pentsaeraren malgutasuna izateko, dimentsio estetikoa estimatzeko eta norberaren proiektu pertsonala eraikitzeko.

C - Bizkortu egiten du bizikidetasuna

Bultzatu egiten dugu elkar onartzea, lankidetzaz, senide-harremanak, inguratzen gaituzten errealitate ezberdinen aurreko sentiberatasuna, iritzi, sinesmen, ideia, ohitura edo errealitate pertsonal ororekiko begirunea.

Kultura- eta erlijio-aniztun gizarte honetan, garrantzi handia ematen diegu zenbait alorrei. Besteak beste, pertsonen aniztasun eta singularitasunarekiko errespetuari, ezberdintasuna aberasteko aukera gisa ikusteari, jarduera demokratikoan esku hartzeari, berdintasunari, pertsonen arteko loturak sortzeari, norberaren kultura norberaren eta taldearen aberastasun iturri bezala estimatzeari, baztertzeko inoiz erabili gabe. Senidetasuna izango da hezkuntza jarduera guztia baitaratzen duen ingurugiroa.



D - Justizia sustatzen du

Salletar eskolaren xedea da haur eta gazteek ezagut, interpreta eta eralda dezatela mundua, hau da, izan daitezela pertsona eta herritar arduratsuak. Azpimarratu egiten dugu ekologiak eta kreatzioaren osotasunarekiko begiruneak duten garrantzia, eta bakeak, Giza Eskubideek eta Haurrenek, eta guztien onerako jardute desinteresatuak daukatena.

Justizian eta justiziarako, bakean eta bakerako, solidaritatean eta solidaritaterako hezteak zera suposatzen du guretzat: haur eta gazteak pertsona zaurgarrien errealitate zehatzetara hurbiltzea. Hurbiltasun horretatik, errazago ezagutzen ditugu, sustatu egiten dugu sentiberatasuna, haiei buruzko azterketa eta hausnarketa. Galdera egokiak egiten laguntzen diegu eta gizarte ekintzetara bultzatuko dituzten jarduera pertsonal eta kolektiboen erantzunak ematen. Gizarte-Hezkuntzazko Obren eta salletar GGKEen (Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeen) bitartez erraztu egiten dugu proiektu solidarioekiko atxikimendua eta Hezkuntza Elkartek guztiaren konpromisoa.

E - Barnetasuna lantzen du

Sinetsita gaude pertsona bakoitzaren hondoenean bizi-proiektu bat eraiki behar dela, bertan osotasun harmonikoa dutelarik ideiek, gorputzak, emozioek, sinesmenek, balioek eta portaerek.

10

Zera nahi dugu: gure haur eta gazteek gara dezatela gero eta gogoeta zaleagoak izateko gaitasuna, ikas dezatela irizpide etikoen arabera jokatzeko, errealitatea anekdota hutsetik haratago irakurtzeko. Horrela dimentsio sinbolikoan irabaziko dute, isiltasuna bizitzan integratzen ikasiko, konpromisoa lantzen eta pertsona osoa bateratzen.

Gaitasun hauek garatzeko indartu egiten dugu auto-estimua; bizipenen eta emozioen adierazpena; enpatiarako, miresmenerako, lasaitasunerako eta isiltasunerako gaitasuna; egitasunaren irrika, esker ona, zintzotasuna eta gogoeta.

Horrekin guztiorrekin, eskola gure ikasleentzat zorioneko esperientzia izatea nahi dugu.

F - Ireki egiten du transzendentziara

Salletar eskolak proposatu, gonbidatu eta lagundu egiten dio Hezkuntza Elkarteari bere dimentsio transzendentea aurkitzen. Kristau eskola denez, esperientzia fededuna bizitzea du ahalbideratzen, kristau konpromisoa Elizaren baitan bizitzen lagunduz, Ebanjelioan eta Nazareteko Jesusen balioetan oinarrituta. Hau guztiau hazkunde pertsonalerako ibilbideen bitartez egingo da elkartearen altzoan.

Ikasleek, gonbitetan eta norberaren hautapenekiko errespetuan oinarrituta, hitza entzun eta onartzeko aukerak aurkitzen dituzte, Ebanjelioaren balioak bereganatzeko, helduen laguntasunarekin ibilbide pertsonala egiteko, fedea eta konpromisoa ospatzeko.

3.2 - Fede hezkuntzaren prozesua

Ebanjelizatzea da gure Hezkuntza Zentroen helburu nagusia. Ebanjelizatuz hezten dugu eta heziz ebanjelizatzen dugu. Geure karisma eskaintzen diogu Elizaren misioari. Geure Hezkuntza Elkarteetako pertsona guztiak dira gure misioaren hartzaileak. Gurasoak, hezitzaileak, ikasleak eta beste lankideak dira gure ebanjelizatze lanaren protagonista eta hartzaile, aldi berean.

A.- Pastoral proiektu gisa

Pastoral La Salle Obren hezkuntza markoari zentzua eta koherentzia ematen dizkion proiektu gisa ulertzen dugu. Hau da beronen xedea: pertsona izatearen eta bilakatzearen prozesuan laguntasuna eskaintzea, bizitzaren zentzuaren bila.

Salletar pastoralak fedearen, senidetasunaren eta zerbitzuaren balioak proposatzen ditu, honako baliabide hauek erabiliz: hurbiltasuna, pertsonalizatzea, segimendua eta behartsuenekiko konpromisoa, kristau humanismoan eta Ebanjelioaren balioetan oinarrituta, tokian tokiko Elizarekin eta Eliza unibertsalarekin komunioan.

B.- Eskolako erlijio irakaskuntza

La Salle Hezkuntza Zentroek Eskolako Erlijio Irakaskuntza kalitatezko baten alde egin dugu erronka. Hezkuntza horrek Nazaretoko Jesusen eta bere Ebanjelioaren ezagutza esplizitua sustatzen du, fedearen eta kulturaren arteko elkarrikteta, gizartearen eta beronen balioen analisi kritikoa; kultura erlijiosoa, soziala eta historikoa ematen diegu ikasleei, pertsona eta kristau gisa heltzen joan daitezen. Horrela hautapen pertsonalak egin ahal izango dituzte mundu senideagoa, solidarioagoa, bidezkoagoa eta baketsuagoa eraiki dezaten egunetik egunera pluralagoa den gizartean.

C.- Pastoral esperientzia gisa

C1.- Fedea ospatu

Fedea ospatzeko une trinkoak proposatzen ditugu, esperientzia une esanguratsuan komunikatuko duen fede partekatua, bizi ibilbide guztietan haragitutako fedea. Horregatik, La Salle Obretan zentzuz beterikoak dira eta lehentasuna dute barnetasunaren heziketak, zeinu eta sinboloen ospakizunek, sakramentuetarako iniziazioak eta fedea partekatzeak hizkuntzarekin, estetikarekin, emozioarekin, harremanarekin zerikusirik duten osagarri oinarritzkoak erabiliz.

C2.- Senidetasuna eraiki

Harremanen senide-arteko estiloa Hezkuntza Elkarteak kideek bizi duten giro abegitsuaren adierazten da. Besteekiko topaketak egiten gaitu garena. Besteekiko topaketak eramaten gaitu gudan den, bizi den eta agertzen den Jainkoagana.

Hezkuntza egitasmo ebanjelizatzaileak egin behar duen bideak izen bat dauka: elkartea. Izan ere, helmuga eta bidea bat dira elkartean. Elkartea adierazten du gure hezkuntza egitasmoaren edukia eta metodoa.

Lehenik eta behin, giza eta kristau heziketa eman eta inguruko gizarte premiei erantzuteko erronkari aurre egiten dion Hezkuntza Elkarte gisa. Bigarren, hezkuntza-misioan fedea bizi, partekatu eta ospatzen duen kristau elkarte gisa.



C3.- Zerbitzua bizi

La Salle Hezkuntza Zentroetan egiten diren ekintza solidarioak justizia eta solidaritaterako pentsatutako planaren arabera burutzen dira. Plan horri esker ezagut daiteke giza errealtatea, interpreta daiteke eta eraldatzeko deiak jaso.

Kanpaina solidarioak, boluntariotza inizatibak, auzolanak... haur, gazte eta helduen hazkunde eta heltze prozesuan erantzun gisa sortu eta hazten dira eta erraztu egiten dituzte konpromiso pertsonalerako erronkak.

C4.- Pertsonalizazioa eta laguntasuna

Saiatu egiten gara La Salle Obretako bizi-ibilbideetan laguntasuna eskaintzen, prozesu katekumenaletarako proposamenak eginez, konpromiso sozialak hartuz, solidaritate eta boluntariotza tailerretan jardunez, GGKEetan modu eraginkorrean parte hatuz, aisialdirako hezkuntzan lagunduz...

Ibilbide pastoral oro bokazionala da, eta laguntasun eta segimenduaren beharrean dago, pertsona eta kristau gisa bizitzan zehar egiten ditugun galderen erantzunak aurkitzen laguntzeko.



3.3 - Pedagogia estiloa

A. Koherentzia eta berriztapena

Hauek dira gure pedagogia arautzen duten irizpideak: hezkuntzaren kalitatea, ikasleen premiei erantzutea, zehaztasun zientifikoa, lan kooperatiboa, autonomia arduratsua eta aurrerapen teknologikoekiko eta metodologia didaktikoekiko sintonia.

Irakasleen prestakuntza, eguneratze iraunkorra eta sormena sustatzen ditugu, horrela heziketaren erronkei profesionaltasun osoz, talde senaz eta irakaskuntza eraginkorrez erantzun diezaieten.

B. Pertsonagan ardaztutako hezkuntza

Pertsona da hezkuntza jarduera guztiaren erdigunea. Formazioaren pertsonalizatzea sustatzen dugu, haur eta gaztearen ezagutza eta segimendua haren ikasketa prozesuan, bere ahalmen guztiak gara ditzan.

Lagundu egiten diegu nor bere ahalegin, arrakasta nahiz zailtasunak ezagutzeko gauza izan dadin eta, era berean, ematen zaizkion laguntzak eta bitartekoak balioztatu eta estimatzeko gauza izan dadin. Gure ustez, aurrerapen oro exigentzia pertsonalean eta etengabeko ahaleginean oinarritzen da, hori baita norbere estimuaren iturria.

C. Aniztasunari emandako arreta

Heziketa inklusiboa aukeratu dugu. Gure heziketa pertsona ororen garapen integralera dago zuzendua, haren erritmoak eta gaitasunak errespetatuz; kontuan hartzen dugu egoeren aniztasuna, bakoitzari garapen osorako aukerak eskainiz.

Haur eta gazteen berezitasun pertsonal, familiako eta sozialek arreta pertsonalizatua eskatzen duten egoerak sortzen dituzte. Hori lortzeko, eta haur eta gazte bakoitzak pertsona eta toki abegikorak aurki ditzan, gure esku diren baliabide guztiak eskaintzen ditugu: tutoretza bakarkakoa eta taldekoa, orientazio zerbitzua, integrazio programak eta aniztasuna kontuan hartzen duten dinamika egokiak.

D. Garapen integrala

Gure proposamen pedagogikoak lau ikasketa oinarritzoei erantzun nahi die: ikasi ezagutzen, egiten, izaten eta elkarrekin bizitzen.

Adimen anitzen garapena dauka erreferentzia gisa eta dinamismo egokiak eskaintzen ditu konpetentzien garapenerako, koherentzia egon dadin eskolak garatzen dituen gaitasunen eta gizarteak eskatzen dituen arteen.

Haur eta gazte bakoitzak bere ezagutza-trebetasun guztiak garatzeko eta kultura sendoa jasotzeko aukera dauka. Honek zenbait ezaugarri dauzka: autonomia gero eta handiagoa, egoera ezberdinen aurreko segurtasuna, ezbeharrari aurre egiteko ahalmena, zentzu etikoa eta bizitza guztian ikasteko desioa.



E. Pedagogia berritzailea: Ikasketa Kooperatiboa eta La Salle Programak

La Salle Obrak irakaskuntza-ikasketa prozesu gisa ulertzen du hezkuntza. Prozesu horretan ikasleak dira beren formazioaren eta hazkuntza pertsonalaren protagonista nagusiak. Elkarlaneko ikasketa (ikasketa kooperatiboa) eta Proiektuka eginikoaren bitartez, Estimulaziorako eta Gaitasunen Garapenerako La Salle Programekin batera, pedagogia berritzailea garatzen dugu. Beronekin lotutako prozesuek segurtatu egiten dute programa hauen segimendua, ebaluazioa eta hobekuntza etengabea.

F. Informazioaren eta Komunikazioaren teknologiak

La Salle Hezkuntza Zentroek etengabe bereganatzen dituzte aurrerapen teknologikoak, pedagogiaren dinamikan erabili ahal izateko irakaskuntza-ikasketa prozesuan, ikasleekin eta familiekin dituzten harremanetan eta barne antolamenduan, hezkuntza kalitatearen etengabeko hobekuntzaren alde. Haien aldeko apustua egiten dugu gizarteak eskatzen dituen konpetentzien garapenerako oinarritzko dinamika gisa.

Teknologia horien erabileran prestatu egiten dugu balorapen kritikoaren ikuspegitik, balio pertsonalak, etikoak eta erlazionalak esparru tekniko hutsaren gainetik jarritz.

G. Hizkuntzen irakaskuntza eta komunikaziorako formazioa

La Salle Hezkuntza Zentroek bultzatu egiten dute hizkuntzen ikasketa, proiektu eleaniztunak eta horretarako programa egokiak garatzen dituzte, esperientzia ezberdinak eskainiz. Lagundu egiten dute hizkuntzak ezagutu eta estimatzen, espresatzen jakiteko eta komunikazioa aberasteko.

Kultura ezberdinek erabiltzen dituzten kodeak eta sinboloak ulertzeko klabeak ematen dituzte, haien mezuak baloratu eta interpretatzeko, haien garapenean konprometitzeko. Gure erantzun sortzaile eta anitzek prestatu egiten dute ikaslea gizartearen etengabe gertatzen diren aldaketei modu eraginkorrean erantzuteko.



H. Kontzientzia kritikoa hezi

Salletar hezkuntzak lagundu egiten die haur eta gazteei inguruko mundua eta bertan gertatzen dena zentzu kritikoan hautematen, gizarte anitzaren balioak eta kontrabalioak aurkitzeko. Goize-roko gogoeta eta tutoretza salletar tradizioak dira eta ikasleak bizitzaren errealitateari eta bere esanahiari adi mantenarazteko modua.

I. Aisiarako eta astialdirako hezte

Hezkuntza jarduera “ordutegi osorako eskola” gisa ulertzen dugu. Ez da mugatzen ez eskolako denborara ez bertako espaziora; beste erakundeekiko lankidetzan burutzen da.

Horregatik indartzen ditugu komunikabideen erabilera hezgarria, Astialdirako Heziketa, kirola egitea, taldeak eta asoziazioak antolatzea, boluntariora. Tokia ematen diegu jolaserako, konpromiso sozialerako eta bizipen espiritualerako aukerei.

J. Hezkuntza proposamenaren ebaluazioa

La Salle Hezkuntza Zentroetan garrantzizko tokia dauka ebaluazioak elkarriketarako baliabide baita, hezkuntza jarduera ulertu, berrikusi eta hobetzeko, Zentroek egungo premiei hobeto erantzun diezaien.

Gure hezkuntza proposamenari buruzko gogoeta iraunkorra sustatzen dugu. Ebaluazio honen bitartez, jaso egiten dugu Hezkuntza jardueraren dinamika buruzko informazio zehatza, garatutako prozesuena, emaitzena eta beste zenbait hezkuntza esparruei buruzkoa.

Ebaluazio Instituzional sistematikoa egiten dugu, La Salle Obraren salletar karismarekiko leialtasuna bermatzeko.





4. *Hezkuntza elkarteak*

4.1 - Pertenentzia sena eta senidetasunezko estiloa

Hezkuntza Elkartek dinamizatzen du salletar Hezkuntza Zentroa. Bertan integratuta sentitzen dira Entitate Titularra, hezitzaileak, beste zenbait profesional, Administrazio eta Zerbitzu etako langileak, pastoral, kirol, aisialdi, eskolaz kanpoko ekimenen animatzaileak, boluntarioak, gurasoak, tutoreak, eta Hezkuntza Zentroarekin lotutako beste hainbat asoziazio.

Guztiak sentitzen dira Hezkuntza Zentroaren espirituaren eta martxa onaren arduradun.

Errespetuan, elkarren arteko konfiantzan eta senidetasunezko estiloan oinarritutako dinamika lehenesten da, hori baita salletar identitatearen zigilu tradizionala. Horrek guztiorrek giro abegitsua sortzera darama, bertan integratuta dauden guztientzat.

Honela ulertzen dugu Hezkuntza Elkarteko talde bakoitzaren esku hartzea:

A. Entitate Titularra

Entitate Titularrak bermatzen du Berezko Izaerari zor zaion leialtasuna. Baita gizarteari eskaintzen zaion hezkuntza proposamenaren identitatearena ere, bere esku baitago Hezkuntza Zentroaren erantzukizun nagusia Elizaren, gizartearen, botere publikoen eta Hezkuntza Elkarre guztiaren aurrean.

B. Ikasleak

Ikasleak dira Hezkuntza Elkarrearen erdigunea, salletar eskolaren izateko arrazoiak. Segurtasun, hurbiltasun eta askatasun arduratsuzko giroan hezten dira; hezkuntza elkarreko kide guztiek onartuta, errespetatuta eta maitatuta sentitzen dira. Eskolako bizitzan duten parte hartze aktiboa, batik bat esku-hartze organoen bitartez, heldutasun prozesuaren eta gizartearen bizitzan integratzearen seinalea da. Ingurunearekin konprometitzen dira eta beren bizitzaren protagonista eta gizartearen eraldatzaile izateko prestatzen dira.

C. Hezitzaileak, hezkuntza prozesuaren animatzaileak

Hezkuntza Egitasmoaren burutzapenean, modu batean nahiz bestean, parte hartzen duten pertsona guztiak dira hezitzaile. Haiengan eta haien bitartez gauzatzen da egunez egun salletar ametsa. Egitasmoaren zimentarri izatearen zereginak Hezkuntza Elkarrearen errespetua eta balorazioa merezi ditu. Hezitzailetzat jotzen ditugu:

C.1 Irakasleak eta beste profesionalak

Guztiek dakite zeinen garrantzizkoa den Hezkuntza Egitasmoari egiten dioten ekarpena. Hezkuntza prozesuaren kalitatearen eta beraien prestakuntzaren lehen arduradunak dira.



Beren bitartekotza zereginak erraztu egiten du onarpena, ulermena eta laguntasuna. Erraztu egiten du jarrera positiboa, optimista eta maitekorra Hezkuntza Elkartearen baitan. Talde gisa lan egiten dute familiekiko harremanetan beste irakasle-kideekin eta beste hezitzaileekin. Beren hezkuntza lanak eragin handia dauka ikasle guztien bizitzako esparruetan. Beren testigantza indarra da transmititu nahi dituzten balioen bermerik handiena.

C.2 Administrazio eta Zerbitzuetako langileak

Administrazioan eta Zerbitzuetan diharduten langileek ere partekatu egiten dute haur eta gazteak hezteko misioa. Tratu maitekorra, egiten duten lana eta hitz adeitsua dira beraien pedagogiaren baliabideak eta ikasleek beraengan antzematen eta estimatzen duten bizi testigantza. Eskolaren estiloaren ageriko aurpegia dira.

C.3 Beste lankideak

Gure eskolan zeregin guztiz garrantzizkoa dute haur eta gazteen heziketaosatzen duten pertsona guztiek: pastoral ekintzetan dihardutenek, aisialdiaz, kirolaz, eskolaz kanpoko ekimenetaz arduratzen direnek; boluntario gisa Gizarte-Hezkuntzazko Obretan eta salletar GGKEetan ari direnek. Guztiengan aurkitzen dituzte haur eta gazteek formaziorako eta laguntasunerako aukerak.

Pertsona hauek Hezkuntza Egitasmo beraren partaide dira, beren bizitarako eta gizarte guztiarentzat itxaropen zeinu gisa ikusten duten Hezkuntza Egitasmoaren partaide.

18

D. Familiak

Gurasoak edo legezko tutoreak dira beren seme-alaben lehen hezitzaileak.

Onartu egiten dute Hezkuntza Egitasmoa eta inplikatu egiten dira seme-alaben garapen integralean zerikusia duten proposamenetan. Lankidetzaren harremanak garatzen dituzte Hezkuntza Elkarteko beste kideekin.

Konfiantza eta elkarren arteko errespetua dira familien, tutoreen eta beste hezitzaileen arteko harremanen oinarria. La Salle Hezkuntza Zentroak laguntasuna eta segimendua eskaintzen die familiei, sustatu egiten du haien partaidetza eta erraztu egiten familiako heziketaren eta Hezkuntza Zentroaren arteko koherentzia.

E. Beste zenbait talde, asoziazio...

La Salle Hezkuntza Zentroetan badaude zenbait Asoziazio (Guraso Elkartea, Ikasle Ohiak, aisialdirako asoziazioak, kulturalak, erlijiosoak...) Salletar Egitasmoarekin identifikatuta sentitzen direnak eta, beren esparru propioetik ikasleei eta Hezkuntza Elkarteko beste kideei eskaintzen zaien heziketa integralaosatzen saiatzen direnak.







5. Kudeaketan esku hartzea

Sustatu eta dinamizatu egiten ditugu zenbait esparru Hezkuntza Elkarteko kide guztiek elkar ezagutu eta elkarrekin parte har dezaten. Arreta berezia ematen diegu familien inplikazioarekin zerikusirik duten dinamikei (Eskola Kontseiluari, Guraso Elkarteei, Guraso Eskolei...)

Gure hezkuntza proposamenaren elkarte dinamikan sinesten dugunez, sortu egiten ditugu Hezkuntza Elkarteko estamentu guztien ekarpena erraztuko duten egokierak eta bultzatu egiten haien lankidetzara proiektu partekatuen garapenean eta haien konpromisoa dagokien protagonismoaren garapenean.

Horrek guztiak hazten laguntzen digu, kontuan hartuz:

- La Salle Hezkuntza Zentroen Berezko Izaerari zor zaion errespetua, eta harekiko identifikazioa.
- Erantzunkidetasuna dagozkien lanetan eta hartzen diren erabakiak betetzeko orduan, eta onartuz beraietatik sortzen diren ondorioak.
- Ordezkaragarritasuna, hau da: Hezkuntza Elkarteko kide guztiek esku hartzeko aukera dutela erabakiak hartzeko orduan, ordezkatzan dituzten organo parte-hartzaileen bitartez, indarrean dagoen legediaren arabera.

La Salle Hezkuntza Zentroetako Barne-Araudiak jasotzen ditu funtzionamendua arautzen duten akordioak eta bermatu egiten du Hezkuntza Elkartea osatzen duten estamentu eta pertsonen arteko koordinazio egokia.







